


www.noaia.com

# Noaia !!



Urtebete egin du Gaztelekuak



Xabier Lete gogoan



**USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA**

**Erdi eta goi mailako zikloak  
A eta D Ereduak**

**[www.lhusurbil.com](http://www.lhusurbil.com)**



**Maiatzak 14 eta 21  
ATE IREKIAK**

**943 36 46 00**



*Marije*

Arropa denda

**Denboraldi berria!**

Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - **USURBIL**



**UDA-GIRORAKO ARROPA LAGUN ONENA  
orain Alkartasuna baserriarren kooperatiban  
erosi dezakezu!**

## Albisteak iruditan!

# Jakinmin handia babes ofizialeko etxebizitzaren zozketan

Agerreazpin eta Sekaňan eraiki-ko dituzten babes ofizialeko 58 etxebizitzaren zozketak jakinmin handia piztu zuen. Baina zozketaren prestaketa lanak uste baino gehiago luzatu ziren eta kiroldegiko ateak itxita izan ziren 17:30ak pasa arte. Bien bitartean, jendetza pilatu zen kiroldegiko atarian, zozketa noiz hasiko zain.

Behin kiroldegi barruan, eserleku denak bete egin ziren, baita harmailak ere. Eta hainbatek zutik jarraitu zuten zozketaren prozedura.

Zozketan izendatuak izan direnek, informazio zehatza jasotzeko aukera izango dute datorren astean, Sutegiko erakusketa gelan.



PASA DEN ASTEAN EGIN ZEN ZOZKETA KIROLDEGIAN.

## Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 373 228	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

## Noaua!

NOUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) / [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Alaitz Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com).

Erredakzio kontseilua, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com): Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiete, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



LUIS ARANALDE

## Altruistak

**B**oluntariotzaren Europako urtearen barruan gaude, eta Pazko astean sartu garenez, gai honi heltzea interesgarria iruditu zait.

Boluntario edo bolondresa da behartsu eta baztertu klase guztien egoeraz kezkatuta dagoen pertsona eta aldi berean pertsona horien alde zerbait egitea erabaki duena. Baldintza batzuk bete behar ditu: altruismoz, solidaritatez eta musutruk aritu behar du, erakunde publiko edo pribatuak antolatutako proiektuetan parte hartzen duelarik.

Zerk bultzatzen du boluntario bat horrela jokatzeko erabakia hartzera? Bizitzan jaso dituen mesedeak gizarteari ordaintzeko gogoak, sinesmenak, pertsona berriak ezagutzeko gurak, norberaren eta inguruko bizi kalitatea hobetzeko asmoak... Guztia da besteen zerbitzuan jartzen dela bere burua apur bat ahantziz.

Gai honi lotuta, aurreko batean irakurri nuen artikulu bitxi bat, Gurutz Linazasorrena hain zuzen. Neurologoa da eta Donostiako Poliklinikan lan egiten du. Alzheimerri buruzko ikerketaren arduraduna da. Zera zioen: musutruk lan egitea da bihotz zabaltasunaren gailurra. Zerbait ematen dugunean, gure zerebroan martxan jartzen omen dira "sariaren zirkuituak", eta aktibitate hau eragiten du dopamina sustantziak. Eta prozesu honetan laguntzen duen beste sustantzia da oxitozina. Elementu honek sortzen du guregan enpatia eta besteenganako konfiantza. Molekula hau spray bezala eman omen daiteke. Esperimentu bat ere egin zuten elizatik irteeran: oxitozina arnastu zutenek limosna gehiago eman zuten arnastu ez zutenek baino. Aholku bat ematen dio Linazasorok klergoari: elizako trunkoa beteta ikusi nahi badute, intsentsua erabili beharrean, toxikozina ematea jendez. Intsentsuak beste bertute batzuk omen ditu. Boluntariotzak eta optimismoak bizia luzatzen omen dute

gainera. Laburbilduz, esaten du: boluntario optimista bat sekulako energia eta osasun iturri da ingurukoentzat.

Testigantza pare bat:

1-"Betidanik izan dut nire denbora libre eta nire bizi parte hartzeko gogo, eta Caritasera joan nintzen. Etxerik gabeko pertsonekin lan ona egiten zutela entzuna nuen eta geratu egin nintzen. Ezusteko handia hartu nuen, batez ere oso hondaturik dagoen gazte jendea pasatzen baita bertatik. Niri izugarri ematen dit".

(Anonimoa, Aterpe).

2-"Nik bizitza zoragarria, senar maitagarria eta seme-alaba zoragarriak nituen, baina, beti sumatzen nuen zerbaiten falta. Lagun batek Aterperi buruz hitz egin zidan eta orduan jakin nuen aurkitu nuela bila ari nintzana: etxerik gabeko pertsonekin zuzenean harremanetan jartzea. Neure burua eta besteena onartzen ikasten ari naiz haiei esker. Bizitzan gertatu zidan gauzarik ederrenetakoa izan da Aterpe ezagutzea".

(Maria, Aterpe).

Carlos Prietok Comillasko Unibertsitatean gazteekin lan egiten du solidaritatea eta konpromiso soziala bultzatuz. Bere aburuz, gaurko gazterik gehiago sinesten du demokrazian eta berdintasunean aurrekoak baino. Bere lan horretan ez du karitatez jokatzeko duzuean ondorioei kasu egiten baitiezu kausak ahaztuz". Lotura sozial berri batzuk sortu nahi ditu. "Gazteek gai izan behar lukete haserretzeko hurkoaren zorte txarra ikusitakoan. Eta hori bakarrik lortzen da aldamenekoa niretzat norbait den neurrian, bere kausa nirea bihurtzen dudanean".

Antonio Mingotek esaten zuen: "Maitasuna da bizitzari zentzua ematen dion gauza bakarra. Gainerako guztia hutsala da". Edo Vicente Ferrerik zioen: "Zergatik ibili egiazen bila? Onberatasuna, errukia da egia".

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika !!

## Artzabaleta gainean, euren legea (ere), hankapean

**E**z da posible, ezin liteke dio Ruper EOrdorikak bere kantan, baina zorigabeko asko, posible direla ikusten dugu.

Eguna joan eta eguna etorri, Artzabaleta gainean Letabide muinoaren babesean dagoen bailaran dabilzan kamioi erraldoi eta induskailuen motoren zarata eta etengabeko pi! pi! pi! ... Gauero sintonia bihurtu dira Usurbilen. Lokartu ezinik gabiltza. Baina zer ajola zaio hori Moyua eraikitzaileari? edo Gipuzkoako Hondakinen Konsortzioari? Eta badakit ezin dutela

gaugez lanean jardun. Badakit Eusko Jaurlaritzara Ingurumen Baimena eskuratzeko aurkeztu zuten dokumentu edo memorian, egun argiko ordutegia errespetatuko zutela jasotzen duela. Nik dakidan bezala, jakitun dira obra baimena eman dion Donostiako udala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentua, eta abar.

Ze arraiotan dabilza gure agintariak? Nora begira daude? Beste hainbat txiki-keri kontrolatzeko hainbat baliabide jartzeko ez duzue erreparorik izaten. Eta hauek, guztion begibistan dena hankapean

etik dutela dabilzanean, ostrukarena egiten duzue.

Erraustegiaren proiektua gezur askotan oinarrituta dagoela badakit. Batzuen politiko berotzeko espreski prestatutakoa dela badakigu. Hau al da etorkizuneko GHK-k izango duen jokabidearen aurrekaria?

Ahoa erraz betetzen zaie komeni zaie-nean, legea kunplitzeko dela esanaz. Edo, paperean itxurak egiteko besterik ez da, negozio handiak jokoan daudenean?

Mikel Zubeltzu

## Sekañako lanak aurrera doaz

**H**ilabeteko azken asteartean bildu ohi da udalbatza, ohiko izaeraz. Apirilaren 26ko bilkuran, lehenik eta behin, akten onespena bozkatu zen eta biak gehiengoz onartu ziren (martxoak 11 eta 15eko bilkuretakoak hain zuzen).

**Sekañako urbanizazio lanak bideratzeko neurriak ere onartu ziren.** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-34 (Sekaña) eremuko urbanizazio-lanen (II. fasea) Exekuzio Proiektuari buruzko bozketan, alde agertu ziren gobernu taldea eta EAJ. Alkarkidek aurkako botoa eman zuen eta Aralarrek eta PSE-EE-k abstentzioaren alde egin zuten.

**Sekañako hiritartze obra kontratua esleitzeko espedientea** ere aztergaien artean izan zen. Gastua eta administrazio

baldintza zehatzen agiria onartzea eta obren lizitazioarako deialdia egitearen alde azaldu ziren gobernu taldea eta EAJ. Alkarkidek aurkako botoa eman zuen eta Aralar eta PSE-EE abstentzioan geratu ziren.

**Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantzari buruz,** alegazioei erantzutea eta behin betikoz onartzea bozkatu behar zuten plenoan. Alkarkide izan ezik, gainontzeko alderdi denek aldeko botoa eman zuten.

**Hiri hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantzaren aldaketa** ere hasieraz onartua izan zen gobernu taldea, Aralar eta EAJren aldeko botoekin. Aurkako botoa eman zuen Alkarkidek eta abstentzioan geratu zen PSE-EEren botoa.

Horretaz aparte, alkatezaren 2011/0297 zenbakidun dekretuaren



AZKEN PLENOAN, SEKAÑAKO URBANIZAZIO LANAK BIDERATZEKO NEURRIAK ONARTU ZIREN.

berri eman zen aurreko asteko udalbatza bilkuran.

Eta maiatzaren 22ko udal eta foru **hauteskundeetan izango diren mahai-kideen zozketa eta izendapena egin zen.** Hala nola, Zubietako Auzo Batzarreko Hauteskundeetarako mahai-kideen zozketa eta izendapena ere.

Ika-mika !

## Garaia da, ez pasatzen utzi

**M**artxoan 20an Zubietan bildutako jendetzaren indarra, ilusioa eta egoera aldatzeko gogo, amorruekin nahastu ziren. Zubietako erriberan, plazan, herri bat auzolanak egin dezakeenaz sinetsita, irribarrerik galdu gabe, dantzan, baina hortzak erakutsiz. Aldi berean Zubietako mendietan indarkeria eta ustelkeria, negozio guztien iturri.

Azkeneko hauteskunde bezperetan esan nuen bezala, guk ez dugu ezer agintzen, gu lanera gatoz. Eta hori da egin duguna. Helburua argi genuen eta lana gogor eginez hondakinak kudeatzeko batzuentzako utopia zena, praktikara eramanez dugu. Hondakinei irtenbidea aurkitu diegu. Nola?

Herritarrei arazoa azalduta eta herritarrengan konfiantza jarrita. Auzolanen egindakoari esker lortu dugu konponbidea.

Herritarrek subjektu aktibo bilakatuz, ohitura aldaketa soil batekin eta udalarekin elkarlanean erakutsi dugu emaitza. Etxetatik hasi eta atez ate jarraituz, iraultza lortu dugu, Diputazioak bultzatu nahi duen errauste planta toxikoen beharra apurtuz.

Herritarrok guda hau irabazi dugu eta horrek ematen die beldurra. Honen adibidea Zubietan ikusi genuen nahiz eta telebistak ezkutatu.

Usurbilgo edozein txokotik Zubietara begira jartzen bazara eta han egiten ari direna ikusten baduzu, konturatuko zara nahikoa da esateko garaia dela. Hau da PNVk eta PSEk adostutakoa. Herri mailan batzuetan horren aurka azaldu arren, bertako ordezkariak goitik agindutakoa irentsi dute. Legealdian maiz errepikatu da hori; herri kontsultan, umeak atez ate

Dudipe abesten zutenean, Flash mobean..., parte hartu nahi baina ezin. Goitik agindutakoa onartzea Zubietan egiten ari direna bultzatzea da. H1koak, berriz, gorrotoaren isla dira. Kiratsa darie. PNVkoek ere ez dituzte ondoan nahi.

Orain guri aurkezteko aukera galerazi digute baina hala ere ilusioaren garaia da. Seguru gaude gauzak zailak jarrita ere, errauste planta gelditu daitekeela, baina horretarako indarra lortu behar da maiatzean, Udaletan eta Diputazioan. Orain arte bezala, auzolanen barrutik eta kanpotik egin beharko da lana. Zure eskutan dago gauzak aldatzeko eta orain arteko gehiegikeriari STOP esatea. Gure etorkizuna jokoan dagoelako Ez pasatzen utzi.

Imanol Azpiroz

teilatuek eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**

**Obaba kalea 29 · ASTEASU**  
© 943 69 68 52 · 620 800 186

**txirriStra**  
KONTZEJUZARRA 13  
943 360 466

plintxoak  
ogitartekoak  
plateer konbinatuak

**TABERNA**

## Patxi Segurola

### “Nire ‘askatasuna’ baldintzatu da”

**A**utun herrian daukate. Konfinaturik. Aurretik, hamaika urte pasatxo egin zituen espetxe ezberdinetan preso. Etxera etortzeko gogoz dago baina erabateko askatasuna lortu bitartean, etxekoan eta lagunen bisitak hartzeko aukera dauka, sikiera.

**NOAUA! Hilabete batzuk egin dituzu espetxetik kanpo. Zer moduz zaude egoera berri honetan?**

**Patxi Segurola.** Noski, ezin esan gaizki sentitzen naizela, ezin alderatuko dut espetxeetan bizi izan ditudan baldintzakin. Halere ezin esan aske sentitzen naizela, nire “askatasuna” baldintzatu da. Konfinatua izan naiz herritik urrun Saône et Loire Departamenduko Autun herrian, beraz debekatua daukat herritik irtetea. Egunero bi aldiz joan behar dut jendarmeriara sinatzera, goizeko 11:00etan eta arratsaldeko 17:00etan.

Egoera honetan, senideentzat eta lagunentzat, nirekin egon ahal izateko bidaia neketsuak eta garestiak dituzte. Noski ez da berdina baldintza hauetan etortzea bisitara ala espetxean izan ditudan baldintzetan, dudarik gabe.

#### PATXI SEGUROLA

“Gose greba egin nuen kanporatua, atxilotua eta inkomunikatua izango nintzen beldur nintzelako”

Ondo gozatzen ari naiz etxekoekin eta etortzen zaizkidan lagunekin.

**N. 1999ko irailaren 30ean atxilotua izan zinen eta ordutik Paris inguruko espetxeetan eduki zaituzte preso. Nolako da Frantziako espetxe politika eta nolako egoeran daude euskal presoak han?**

**P. S.** Sei espetxe ezagutu ditut hamaika urte eta lau hilabete eta erdi luzeko espetxealdian. Esango nuke espetxe bakoitza mundu bat dela. Frantziako espetxe politikaz azken urte hauetan asko hitz egin



PATXI SEGUROLAK BI HILABETE BETE DITU AUTUNEN, KONFINATURIK.

da, baina kondizioak ez dira hobetu. Preso gaixoen kopurua gora doa, zaintza ez da behar bezalakoa. Frantziako espetxe politika, pertsonen nortasuna eta duintasuna ezabatu eta beren sisteman robotak bezala kokatzeko egindakoa da. Euskal preso politikoak erregimen berezian bizi dira espetxeetan, oso gertutik kontrolatuak, espetxeetan ere sakabanatuak, talde txikitan. Askotan aktibitateak ere murriztuak, banaka joan behar, bi edo gehiago batera ez dituztelako nahi. Bisita baldintzak ere espetxe askotan ez dira batera egokiak, horrek arazo asko sortzen dizkie.

**N. Udazkena gorabeheratsua izan zen zuretzat. Konfinatua izango zinela esan arte, egoera ez zegoen argi eta gose greba hasi zenuen. Espainiaren eskutan, atxilotua eta inkomunikatua izango zinen beldur, akaso?**

**P. S.** Bai, hala esan dezaket udazkena gorabeheratsua izan zela. Egia esan, nik espero nuen halako zerbait. Aipatu izan diet bisitariei, beste estradizio eskaera edo halako zerbait egingo zidatela. Beraz, alde horretatik prestatua nintzen.

Prestatua nintzen estradizio eskaera ala kanporaketari aurre egiteko. Nire poltsa Espainiako espetxeetan pentsatuta prestatu nuen hain zuzen. Beraz, gose greba horregatik egin nuen, kanporatua, atxilotua eta inkomunikatua izango nintzen beldur nintzelako. Ez nintzen fidatzen.

#### “Nire askatasuna arriskuan ikusi nuen”

**NOAUA! Pariseko epaitegiak zu entregatzeko oinarri falta argudiatu zuen bitan, baina aske geratzeko zorian zinen egunetan, hirugarren estradizio eskaera egin zuen Espainiak. Zure askatasuna arriskuan ikusi zenuen?**

**Patxi Segurola.** Bai, nire askatasuna arriskuan ikusi nuen. Aldiz, itxaropen pixka bat piztu zitzaidan Prokuradoreak irakurri zidanean Espainiaren hirugarren estradizio eskaeraren zergatia. Horrela, hirugarren estradizio eskaera horren epailetan nintzela, hartu nuen berri, laugarren estradizio eskaera.

Lehenik 2000n Frantziak ukatutako bi estradizio eskaerak ziren berriki eskatuak. Argudioak, 2005ko Dublineko euro aginduen akordioetan datza.

Ez dakit gogorra dela esan, edo... Horretarako burua prestatua dugu, nik behintzat hala nuen. Egia da ere, guztia nola pasako den, nolako erantzuna jasoko nuen epaileengandik, kezka horrekin bizi nintzen eta nahiko urduri nintzen.

## “Bi aldiz sinatu behar dut egunero komisaldegian eta ezin dut herritik irten”

**E**gunean bitan joan behar du komisaldegira. Eta ezin du Autun herritik mugitu. Internet da mundura zabalik duen leiho bakarra. Horri esker izaten ditu Usurbilgo albisteen berri.

**NOAUA! Nolako da konfinatua dagoen pertsona baten bizitza?**

**Patxi Seguro.** Egia esan, ez dakit nola erantzun, ni orain ari naiz bizitzen konfinatu bezala, beraz, konfinatuaren bizitza berri hau ezagutzen hasi berria naiz.

Aipatu bezala nire bizitza baldintzatua da; lehenik kontrolpean, bi aldiz sinatu behar dut egunero, goiz eta arratsaldez, beraz, bi ordutegi horiek kontuan edukiz, erlojuari so, garaiz iristeko.

Bigarreno; mugimendua mugatua dut, herritik ezin dut irten.

Momentuz hotela ordaindua dut, bera-ekin batera otorduak ere. Gertatzen dena, hotelak gosariak eta afariak bakarrik ematen ditu, gainera igandetan ez dute afaria ematen, beraz bazkariak eta igandetako afariak, neroni arduratzen naiz.

Zertan igarotzen dudan eguna? Bisitariak ditudanean haiekin gozatzen, bestela, inguruak ezagutzen, haize berriak arnasten... Eta herriko jendearekin konektatzen Internet edo telefonoaren bidez, batez ere gazteak ezagutzen.

**N. Eta zenbat denboraz luzatuko da konfinazioa, badakizu?**

**P. S.** Ez dakit ezertxo ere horretaz. Prokuradoreak errekursoak jarriak ditu estradizio eskaeren epaien aurka. Ez dakigu noiz aztertuko dituzten. Beste aldetik, guk ere errekursoa jarri dugu konfinazioaren aurka, beraz, onartzen badigute, hau ere aztertu behar dute.



BISITAK ATENDITZEN ETA AUTUNEKO BAZTERRAK EZAGUTZEN EMATEN DU EGUNA.

**N. Euskal Herrira eta bereziki zure etxera itzultzeko eguna gertu ikusten duzu?**

**P. S.** Bai, baina noiz?

**N. Badirudi garai berri baten hasieran dagoela Euskal Herria (duela hiru aste egina dago elkarrizketa...).**

**P. S.** Itxaropen handiarekin.

### “Horixe izan da beti gure nahia eta deia, abertzaleen arteko indar metaketa”

**NOAUA! Elkarlanerako urratsak ere eman dira. Gernika Usurbil taldeak, hainbat ekitalditan, sentsibilitate ezberdineko korrontekak bildu ditu.**

**Patxi Seguro.** Horixe izan da beti gure nahia eta deia, abertzaleen arteko indar metaketa.

**N. Herrira itzultzeko gogoz izango zara. Etortzen zarenean, zer da egingo duzun lehen gauza?**

**P. S.** Hala da, gogo handiak ditut etxera bueltatzeko. Nire lehen nahia

da; ni bisitatzera etorri ezin duten lagunak (adinekoak), bisitatzera joatea.

**N. Azkenik, zer esango zenieke hilabeteko azken ostiraletan, euskal presoek eskubideen aldeko elkarretaratzeetan parte hartzen duten herritarrei?**

**P.** Eskerrak eman nahi dizkiet, beren zereginak alde batera utzi eta deialdi horietara txintxo agertzen zareten guztiei. Eta deia luzatu nahi dizuet, segi behar dugu preso eta iheslari guztiak etxeratu arte.

**JE JON ELORZA**  
**IGELTSERITZA**  
**OROKORRA**  
**Obrak eta erreformak**  
**661 804 688**  
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

**LATAILLADE**     
**ITURGINTZA**  
**GASA**  
**BEROKUNTZA**  
**MANTENIMENDUA ETA**  
**KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK**  
 Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

# Ingemarreko 30 langile baino gehiago ez kaleratzea ebatzi du Lan Ordezkaritzak

**H**ilabete pasatxo iraun zuen kontsulta epean, enpresako zuzendaritzaren eta langileen batzordearen arteko akordioak erdietsi ez denez, Ingemarreko langileen etorkizuna Lan Ordezkaritzaren esku geratu zen apirilean. Mahai gainean zuen 60 langile kaleratzeko Enpleguaren Erregulazio Espedientearekin (ERE delakoa) zer egin erabaki behar zuen eta erabaki du jada; enpresako eta langileen eskakizunak partzialki onartu ditu. Hau da, 30 langile baino gehiago ez kaleratzea ebatzi du.

Lan Ordezkaritzak Ingemarreko lan gatazkaren inguruko erabakia ezagutzera eman du. Enpresako zuzendaritzak 60 langile kaleratzeko aurkeztua zuen EREa partzialki, erdizka onartu du azkenean. Hau da, 30 langilera arte kaleratzeko aukera onartu dio enpresa zuzendaritzari.

Hasieratik kaleratzen aurka borrokatu arren, Langileen Batzordetik lorpen moduan baloratu dute Lan Ordezkaritzaren ebazpena. "Mugitu garelako lortu dugu", bestela langile guztiak egun kalean izango zirela gogorarazi



PASA DEN HILABETEAN INGEMARREN HILETA IRUDIKATU ZUTEN DONOSTIAN.

dute. Euren esanetan, oso erabaki zaila hartu behar zuen Lan Ordezkaritzak, enpresak eginiko presioa tarteko eta langileen eskakizunak zirela eta. Jakin duteenez, Lan Ordezkaritzak esku artean izan duen ERE zailena izan da. Lan gatazka sozializatzeko burutu duten ahalegin eta lana dago horren guztiaren atzean, langileen esanetan, azkenean, "gure argumetuak benetakoak zirela" ebatzi dute.

## Enpresaren erantzunaren zain

Orain, enpresako zuzendaritzarekin bildu nahi du langileen batzordeak "bere erreakzioa ikustea geratzen zaigu".

Langileen esanetan, "lan gatazkari bukaera ordenatua" eman behar zaiola adierazi diote enpresako batzordeari. Langileen Batzordetik gaineratzen dute, ahalik eta kasu gehienetan euren kabuz joan litezke, beti ere "aurre jubilatze plan itxuroso bat jarrita". Gogorarazi behar baita, Lan Ordezkaritzak gehieneko kaleratze kopurua zehaztu eta onartu duela, baina ez ordea, kaleratze horiek zer modutan eta baldintzatan gauzatu behar diren. Artean, eta enpresaren erantzunaren zain, martxoaren 14an hasitako greba mugagabearekin jarraitzeko asmoa dute Ingemarreko langileek.

## Adostasun faltan, Lan Ordezkaritzak zuen azken hitza

**H**ilabete pasatxoan indarrean hegoin kontsulta epean eginiko bileretan, enpresako zuzendaritzaren eta langileen arteko adostasunik lortu ez zenez, azkenean, Lan Ordezkaritzaren esku geratu zen Ingemarreko 60 beharginen eragiten zien ERE-aren inguruko erabakia.

Aste horietan hainbat mobilizazio burutu zituzten langileek. Tartean, apirilaren 8an Ingemarren hileta irudika-

tuz, langile, senitarteko eta herritarrek Donostian burutu zuten manifestazioa.

## Zuzendaritzaren eskaintzak

Bi aldeen jarrera urrunen lekuko, gaia Lan Ordezkaritzaren esku geratu aurretik, enpresak eginiko azken eskaintza zen. Langileen Batzordetik berri eman dutenez, zuzendaritzatik hiru proposamenen berri jaso zuten, nahiz langileek buruturiko asanbladan horietako bat bera ere ez onartzea erabaki zuten:

- 60 langile kaleratzea, eta 15 hilabetetako soldata jasotzea. Hamabi, unean bertan kobratuta eta beste hirurak, langileen langabezia epea amaitzean.

- Aipatu baldintza berdinetan 45 langile kaleratzea eta gainerako langileei bost urtez lanaldi eta soldata %50ean murriztea.

- 40 langile kaleratzea 12 hilabetetako soldata jasoz eta gainerako langileei bost urtez lanaldi eta soldata %50ean murriztea.

**TXAPELDUN**  
TABERNA  
razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...  
Muna Iurra 2, 943 11 82 53

**TAXI**  
607 92 87 70  
943 00 44 83  
Angel (24h) USURBIL

**JOSETXO IKATZETA**  
Iturgintza  
TEL: 943 36 20 26  
687 95 12 25

Andoni Errazkin  
**Xukin**  
igeltseritza orokorra  
Barne eta kanpoko lanak  
**USURBIL**  
663 08 76 71 • 943 24 34 65



## 20 hizkuntza hitz egiten dira Usurbilen

**J**atorri desberdinetako herritarren arteko elkarbizitza adibideak ezagutzeko ez dago urrutira jo beharrik. Biztanleen sorteriari lotutako aniztasun hori Usurbilen bertan aurki dezakegu, berriki Udalak eta Anitzak Ekimenak aurkeztu duten alor honi buruzko diagnosi baten arabera. Nola bideratu ordea jatorri desberdinen arteko herritarren arteko elkarbizitza? Gakoa den galdera planteatu zen gaion inguruan apirila hasieran antolatutako ziren jardunaldietan.

Diagnosia “Usurbil Munduan, Mundua Usurbilen” izeneko jardunaldien barruan aurkeztu zen, Artzabalgo bilera areto nagusian martxoaren 31n burutu zen ekitaldian. Zebakitan hauxe da Usurbilgo biztanleriaren erradiografia, jatorriari dagokionean: usurbildarren %83 Euskal Herrian jaioa da, %13 estatu espainiarrean, %1 Europar Batasuneko herrialderen batean, eta %3 Europar Batasunetik kanpoko herrialderen batean.

Ehuneko horietara ailegatzeko azken hamarkadotan gertatu diren migrazioak aztertu behar dira. Udalak eta Anitzak Ekimenak burututako diagnosiak jasotzen duenez, biztanleriari loturiko bi mugimendu nagusi izan dira azken hamarkadotan; lehena, 1960-70 artean gertatu zena. Ondorioz, 80.hamarkada hasterako 3000tik ia 6000 biztanle izatera igaro zen Usurbil. Garai hartan jazo zen migrazio mugimendu hark, beste udalerriekin alderatuta berezitasunik bazuela azpimarratu zuen EHUko irakasle Pedro Albitek. “Usurbilen beranduago gertatu zen, baina kolpera herritar asko gehiago etorri ziren”, adierazi zuen. Horren erakusle datu bat; 60. hamarkadan Gipuzkoan %25eko biztanleri igoera eman zen artean, Usurbilen %40tik gorako igoera izan zen.

Bigarren migrazio mugimendu nagusia, azken hamarkada honetan gertatu da. Bi migrazio mugimenduotan Usurbila etorritako biztanleen jatorrian ere bada distantziarik. Joan den mendeko 60-70 hamarkadetan espainiar estatutik etorritako biztanleak ziren nagusiki; Gaztela-Leon edota Extremadura aldekoak. Azken hamarkadan aldiz, Europar



20 HIZKUNTZATAN MINTZO DIREN 30 JATORRI EZBERDINEKO HERRITARRAK BIZI DIRA USURBILEN.

Batasunetik etorritakoak nagusitu dira; Errumania, Portugal, Bulgaria, Erresuma Batua, Belgika edota Alemaniatik heldutakoak. Baita Hego Ameriketatik ere; Ekuador, Kolonia, Brasil edota Nikaraguitik. Edota Marokotik.

tuaren izaeratik abiatuta” egina da diagnosis. Ikuspegi integrala eskaintzen du, antzeko ikerketek etorkinen lan eta papereen egoeraren ingurukoak baitira, Artzabalen aurkezturikoak ordea gai honi loturiko alor guztiak jorratzen ditu.

XABIER MIKEL ERREKONDO

“Etorkina herritar bat gehiago izan behar da, integratzen dena, Usurbilgo ohituretan, kulturetan...”

### Ikuspegi desberdina

Lan berritzaile eta beharrezkotzat jo zuen Xabier Mikel Errekondo alkateak, alor honetan eginko diagnosis. Udal ordezkari moduan, honela deskribatzen zuen etorkin batek herriarekiko izan beharko lukeen lotura: “Etorkinak ez du Usurbilen izan behar laguntza jasoko duen pertsona bat soilik. Herritar bat gehiago izan behar da, integratzen dena, Usurbilgo ohituretan, kulturetan... Herri bizia izateko etorkinak parte hartu behar du”.

Berritzailetzat jo zuen ikerketa, baita Pedro Albitek ere. Euskal Herri mailako ikuspegia jasotzen duelako, “nazio gutxi-

### Herritarren arteko elkar ezagutza bultzatzea, etorkizuneko erronka

**D**iagnosiak alor honetan zegoen informazio hutsunea betetzen lagunduko duela aipatu zen aurkezpen ekitaldian. Diagnosia burutzeko hainbat herritar eta eragileei egin zaizkien elkarrizketetatik ondorioztatu denez, batetik, beharrezkotzat jotzen da gai hau lantzea. Bestalde, konplexutat jotzen da jatorri aniztasuna eta elkarbizitzaren inguruko gaia. Batez ere nondik bideratu erabakitzea, aurkezpen saiora bertaratu zen herritar batek zioen moduan, “gai honetan, zer eta nola egin?” hortxe dago gakoa. Eta erantzunak planteatzen hasi ziren; tartean, herritarren elkar ezagutza bultzatzea, Udalaren, etorkinen eta herritar taldeen elkarlanaren bidez.

## Jexux Artze kultur taldekoek

# Xabier Lete omenduko dute aurtengo zikloan

**J**exux Artze gazte zendu zen. Baina bere ekarpena handia izan zen eta bere lagunak, herrikoek nahiz kultur gintza mailakoek, ez dute ahaztu. Xabier Leteren kasuan ere, antzeko zerbait esan daiteke. Biak izango dira protagonistak maiatzaren 14ko kontzertuan, Leteren omenez kiroldegian antolatu den kantaldian. Zinearekin eta antzerkiarekin osatzen da Jexux Artze taldeak prestatu duen egitaraua. Honetaz guztiaz hitz egin digu Joserra Furundarenak, antolaketan batzordeko kideak.

**NOAUA! Urte batzuk badira Jexux Artzeren omenez ekitaldiak antolatzen hasi zinetela. Urtero-urtero jardunaldi hauek mantentzea lan handia al da? Ardura ere bai akaso? Noiz hasten zarete egitaraua prestatzen?**

**Joxerra Furundarena.** Dena ondo badoa, datorren urtean 10 urte beteko ditugu ekitaldiak antolatzen.

### JEXUX ARTZE TALDEA

“Ez Dok Amairu erakusketa egin genuenean, Xabier Letek eta Lourdes Iriondok laguntza handia eman ziguten”

Abenduaren bukaeran edo urtarrilaren hasieran hasten gara egitarauari forma ematen. Jexux Artze maiatzaren 3az hil zenez, data horren inguruko aste-bukaerak aukeratzen ditugu eta egitarauko proposamenak aztertzen hasten gara.

### Hilabeteetako lana

Musika, antzerkia, hitzaldiak, pelikula, kaleko emanaldiak... denetik aztertzen dugu eta horretarako aurreko udan, Durangoko azokan eta gabonetan beste herritan izandako ekitaldiak, argitaratu diren diskoak eta bestelakoak begiratzen ditugu eta lehenengo aukeraketa bat egiten dugu. Ondoren informazio gehiago



DATORREN ASTEAN IZANGO DA LETEREN OMENEZKO KONZERTUA.

jaso eta aurrekontuak eskatzen ditugu eta azkenean erabakiak hartzen ditugu. Otsailean ekitaldiak erabakita edukitzen ditugu. Hortik aurrera promozioa, sarrerak, diptikoak prestatu, baldintza teknikoak zehaztu eta horrelako lanak egiten ditugu. Ekitaldien ondoren, maiatzaren bukaeran balantzea egiten dugu.

### Pozik erantzunarekin

**N. Jendearen erantzuna ona da gainera, horrek ere lanean jarraitzeko indarra emango dizue, ezta?**

**J. F.** Orokorrean oso pozik gaude jendearen erantzunarekin. Oiardo kiroldegian antolatu ditugu ekitaldi batzuk eta gehienetan entzule asko biltzea lortu dugu. Bestalde beste ekitaldi batzuk Sute giko auditorioan egin ditugu eta gutxigorabehera esperotako erantzuna izan dugu, kontuan hartuz askotan publiko zehatz batentzat pentsatutako ekitaldiak direla.

Beti gustatu zaigu ekartzen ditugun artistak mimoz tratatzea eta ekitaldien promozio txukuna egitea, horretan NOAUA! aldizkariaren eta udalaren laguntza izaten dugu. Zenbait pertsona gonbidatu egiten ditugu ekitaldira etortzeko animatu daitezten.

## “Xabier Letek beti lagundu gintuen”

**N. Leteren partehartzea garrantzitsua izan zen Ez Dok Amairuren inguruko erakusketa egiteko ezta?**

**J. F.** Xabier Letek beti lagundu gintuen antolatzen genituen ekitaldietan. Hasieran Ez Dok Amairuren erakusketa egin genuenean bai berak eta bai Lourdesek bere etxean hartu gintuzten eta laguntza handia eman ziguten bai datuekin, dokumentuekin eta argazkiekin.

Ondoren hitzaldietara eta kontzertuetara behin baino gehiago etorri zen, bere azkeneko poema-liburua musikaz lagunduta aurkeztera ere etorri zen eta hori dena bihotzez eskertzen diogu bere gaixotasuna medio esfortzu handia egin behar izaten zuelako.

Bere heriotzaren ondoren omenaldi bat egin behar geniola pentsatzen hasi ginen eta enteratu ginen Joxe Angel Arbelaitz kultur dinamizatzailea hiri eta herri ezberdinetan kantaldi-omenaldiak antolatu nahian zebilela. Berarekin harremanetan jarri ginen eta ia dena egin eman zigun. Segituan jarri ginen ados eta maiatzaren 14ko kantaldia prestatu genuen.

## Antzerkia eta zinea, beste osagaiak

**NOAUA! Xabier Leteren omenez egingo den ekitaldian, zer topatuko du maiatzaren 14an kiroldegira hurbiltzen denak?**

**Joxerra Furundarena.** Xabier Leterekin jotzen zuten musikariak izango ditugu kantaldi osoan eta kantari ezberdinak bere kantuak abesten joango dira. Antton Valverdek eta Pier Paul Berzaitzek harreman oso handia eduki zuten Xabierrekin eta antolatuko diren kantaldi guztietan hartuko dute parte.

Usurbilgo berezitasunak izango dira alde batetik kantarien artean Amaia Zubiria eta bere kontzertuetan Xabier Leteren beti aipatzen duen Paco Ibañez ezaguna eta beste alde batetik Joxean Artze olerkaria. Denok dakigun bezala Joxean Artze ere Ez dok Amairu taldeko kide garrantzitsuenetako bat izan zen eta Xabier Leteren oso laguna.

Petti abeslaria Oiartzungo omenaldian izan zen eta berak egindako bertsoiak oso gustukoak izan ziren eta Usurbilen ere arituko da. Kontzertua bukatzeko entzule guztiek parte hartuko duten sorpresa txiki bat ere izango da.

Sarrerak oso ondo saltzen ari dira eta interesa daukanak aurretik erosi ditzala kopurua mugatua izango baita.



DATORREN OSTIRALEAN, MAIATZAK 13, "IZARREN HAUTSA" IZENENKO PELIKULA ESKAINIKO DUTE SUTEGIN.

**N. Dena den, antzerki saio batekin hasiko da Jexux Artzeren omenezko zikloa. Eta film baten proiektzioa ere antolatu duzue, ezta?**

**J. F. Bai,** asko gustatzen zaigu antzerki saioen bat programatzea eta aurtengoan ere "Larria, kutsakorra, mendebaldekoa" komedia ekarriko dugu. Antzezlanen ondo ari da mugitzen beste herrietan eta denek gustokoa izango dela pentsatzen dugu.

"Izarren argia" pelikulak berriz arrakasta izan zuen iaz zinema aretoetan estrengian. Gaia oso interesgarria da, 36ko gerra zibilean Saturraranen egon zen emakumeentzako kartzelean umeen lapurreta agertzen delako. Orain ari dira azaleratzen orduko gertakizunak eta film honetako aktorea ezagunek eta zuzendariaren lanak oso ondo agertzen dute gertatutakoa.

### "Larria, kutsakorra, mendebaldekoa" antzerkia

**P**atxo Telleriak eta Jokin Oregik idatzitako testua du oinarri. Bakarrizketa izan arren, Mikel Martinez aktoreak hiru pertsonaia egingo ditu, eta pertsonaia batetik bestera salto egiten ibiliko da, antzezlanen zehar. Akzio berberak efektu desberdinak sortuko ditu, nor egingen duenaren arabera, eta hitz berberak esanahi desberdinak izango ditu, nor esaten dituenaren arabera.



MAIATZAK 7 LARUNBATA, 20:00ETAN SUTEGIN.

### "Izarren argia", 36ko gerran girotutako filmea

**M**utrikuko Saturrarango hondartzan, 1938tik 1944ra 1.500 emakume inguru egon ziren preso. "Komunismoa desagerrarazteko" aitzakian, 57 ume euren amarengandik urrunarazi zituzten eta gerrako garaile familiei eman. Horixe da "Izarren argia" euskarazko filmaren ardatza, Mikel Rueda zinemagile bilbotarraren lehen lan luzea.



MAIATZAK 13 OSTIRALA, 20:00ETAN SUTEGIN.

### Sarrerak dagoeneko salgai

**MAIATZAK 7 LARUNBATA**  
"Larria, kutsakorra, mendebaldekoa" antzerkia Sutegin, 20:00h

8 euro alde aurretik Lizardin salgai. Egunean bertan Sutegin, 10 euro.

**MAIATZAK 13 OSTIRALA**  
"Izarren argia" Sutegin, 20:00h

2 euro alde aurretik Lizardin salgai. Egunean bertan, prezio berean, Sutegin.

**MAIATZAK 14 LARUNBATA**  
"Xabier Leteren gogoan" kiroldegian 22:00h

12 euro alde aurretik Lizardin, kiroldegian, kutxa.net eta Telekutxan (932 001200). Egunean bertan, 15 euro Oiardo kiroldegian.

### SARRERA ZOZKETA

Ekitaldi bakoitzerako pertsona batentzako bina sarrera jarri ditu zozketan Jexux Artze taldeak. Zozketan parte hartzeko, e-posta bidali erredakzioa@noaua.com helbidera eta maiatzaren 6an egingo dugu zozketa, eguerdiko 12:00etan. Gure web orrialdean jarriko dugu irabazlearen izena.

# Parte hartzea eta ilusioa piztu ditu Gaztelekuak, ireki eta lehen urtera

**G**azteak gogotsu aritu dira Gaztelekuan, ilusio handiz hartu dute herriko baliabide berri hau”, esaldi honekin laburbildu daiteke iazko udaberritik gaurdaino, Gaztelekuak osatu duen ibilbidea eta erabiltzaileen artean izan duen harrera. Garai bateko Gure Pakea elkartearen egoitza izandakoa biziberritu du bilgune berriak. Hiru fasetan banatua zegoen udal proiektua bere amaierara heldu zen urte hasiera honetan, lehen hilabeteetako balorazioa egitearekin batera. Emaitzak eskutan, indarberriturik eta zabalik jarraituko du Gaztelekuak.

Urtebeteko tartean hiru fasetan zuten banatua euren proiektua. Gerturapen lanekin ekin zioten 2010eko udaberririan. Dinamizazio lanei ekin zieten udazkenean, urte hasieran burutu duten balorazio lanarekin borobiltzeko. Ebaluazio lan horretan erabiltzaileen, hau da, 12-16 urte arteko gazteen iritzia jaso nahi izan dute eurekin lanean dabil-tzan Ostargi gizarte elkarteke hezitzaileek. Mailaz maila jaso dituzten erantzunak honakoak dira:

## DBH 1

Eurentzat Gaztelekua ondo kokatua dago, txikia den arren. Txantxa jolasak eta Donostiako Txuri Urdinera eginiko irteera dira, hobekien baloratu dituzten ekintzak. Material falta sumatzen dute ordea. Ikastolan batera daudenez, Gaztelekuak harremanak sendotzeko baliagarri ez zaiela suertatu diote, baina gunea gustukoa duten seinalea da; ordutegia zabaldu izana eskatzea. Bi astean behin elkartzea gutxi delako eurentzat.

## DBH 2

Oso ondo batekin baloratzen dute, gazteen jarrera, harremanak eta kokalekua. Ondo, hezitzaileen jarrera, herri harremanak, jarduerak, materialak eta espazioak. Erdizka, komunikazioa eta garbiketa. Eta gaizki, ordutegiak.



ORDUTEGIA ZABALTZEA, GAZTEEK EGIN DUTEN ESKAERA DA.

## DBH 3-4

Oso ondo baloratzen dituzte, harremanak, kokalekua, guneak eta hezitzaileak. Ondo, arauak, komunikazioa, herri harremanak eta ekintzak. Erdizka materiala, gaizki txukuntasuna eta oso gaizki ordutegiak.

## KONTUAN HARTZEKO DATUA

“Hezitzaileek jasotako datuen arabera, neska gehiago hurbiltzen dira Gaztelekura, mutilak baino”

## Gaztelekura ez doazenak

Hezitzaileek inkesta modukoa egin diete bestalde, Gaztelekura ez doazen 12-16 urte arteko 15 neska-mutilei. Ikasleok Gaztelekura ez joateko hiru arrazoi nagusi agertu dituzte: nahi ez izatea, beren lagunak ez doazelako edota beste ekintza batzuk dituztelako.

## Erabiltzaile eta parte hartzaileei buruz

Gaztelekuaren proiektua garatzen joan ahala, erabiltzaileen parte hartzeak gorantz egin du. Hezitzaileek jaso dituzten datuen arabera, neska gehiago hurbiltzen dira bertara, mutilak baino.

## Gazteen eskariz, ordutegi zabalagoa martxan

**O**rain arte gazteak adinka bildu izan dira Gaztelekuan. Aurrerantzean ordea, eta gazteek hutsunea nabarmendu eta hala eskatu dutenez, maila guztietako ikasleak ordu eta leku berean biltzeko aukera izango dute. Horretarako, ordutegia zabaldu eta berritu ostean, indarrean du jada Gaztelekuak:

### Astelehenetan:

16:30-18:00 DBH 3. eta 4.

mailakoentzat.

18:00-19:30 Gazte guztientzat.

### Ostegunetan:

16:30-18:00 DBH 2.

mailakoentzat.

18:00-19:30 Gazte guztientzat.

### Larunbatetan:

16:00-17:30 DBH 1.

mailakoentzat.

17:30-19:00 Gazte guztientzat.

### Gaztelekuaren emaila:

gaztelekua@usurbil.net

## Santueneko Argazki Lehiaketa

**H**erriko txoko politenak erretratatzea. Hori da Santueneko Kultur Elkarrean argazkizale gazteei jarri dien erronka. Datorren astean irekiko da izena emateko epea.

1.- Argazki lehiaketaren lema "Herriko Txoko Politenak" izango da.

2.- Lehiaketa honetan elkarte edozein bazkidek har dezake parte 14 urte bete gabe baditu.

3.- Izena ematea maiatzaren 14an hasi eta maiatzaren 22a bitarte egin daiteke ludotekako ordutegian.

4.- Argazki bakarra aurkeztuko da eta tamaina normalekoa izango da (bertikala edo horizontala).

5.- Epaimahaian udaletxeko kultur departamentuko teknikaria, kultur zinegotzia eta elkarteak izendaturiko ordezkaria izango dira.

6.- Aurkeztutako argazkiak hirutan sailkatuko dira 4-8 bitartekoak, 8-11 urte bitartekoak eta 11-14 urte bitartekoak, eta lehiaketa epaileak ere 3 balorazio egingo ditu.

7.- Adin bakoitzeko argazki bat aurkeztuko da eta bakoitza 50 x 50 formatuan handituko du elkarteak.



GAZTETXOEI ZUZENDUTAKO LEHIAKETA DA HAU.

Handitutako argazki horiek prentsan argitaratuko dira eta ikusgai jarriko dira leku ezberdinetan.

8.- Irabazleei formatu handiko argazki horiek emango zaizkie kuadro batean enmarkaturik eta irabazle ohartxoarekin.

9.- Lehiaketan parte hartu duten guztiei sari txiki bat emango zaie.

10.- Argazki hauek aurkezteko azken eguna maiatzaren 29a izango da, arratsaldeko 19:00etan. Ludotekan aurkeztuko dira argazkiak, sobre itxian, azalean izen abizenak eta adina jarriaz.

11.- Irabazleen izenak ekainean emanango dira.

### Autoestima

#### tailerra Santuenean

Izar Arregi psikologoak gidatuko du autoestima tailer hau. Talde dinamika ugari izango dira tailerrean eta teoria eskainiko den arren, norbere hausnarketa eta lanketa pertsonala egiteko gonbitea ere egingo da.

Noiz: Maiatzak 6 eta 20, ekainak 3 eta 17, urriak 7 eta 21, azaroak 4 eta 18, abenduak 2 eta 16. 15:00-16:30h.

Non: Santuenea 12ko egoitzan.

Antolatzailea: Santuenea KE.

### Jose Ramon Mauduit, Haur Eskolan hizlari

Datorren astelehenean, maiatzak 9, Jose Ramon Mauduit psikoterapeuta Kalezarren izango da hizlari, bertako Haur Eskolan. Guraso guztiei irekitako ekitaldia izango da eta bereziki haurdun daudenei edo umea izan berri dutenei zuzendutako hitzaldia eskainiko du.

Jose Ramon Mauduiten saioa arratsaldeko 18:00etan hasiko da eta 20:00ak arte iraungo du.

### Informatika eta ingeles ikastaroak Aginagan

Maiatza eta ekainerako, zazpi aste iraungo duten bi ikastaro antolatuko ditu Aginagako Antxomolantxa elkarteak. Helduei eta haurrei zuzendutako ikastaro bana; informatika eta ingeles saioak hurrenez hurren. Informatika ikastaroak alor honetan helduek dituzten hutsuneak bete eta zalantzak argitzeko balioko du. Izena aldeztu aurretik eman behar da, 600 484 948 telefono zenbakian. "Say & Play" ingeles tailerrean, jolas, kantu eta antzerkiaren bidez ingelesez hitz egiteko aukera izango dute 5-12 urte arteko haurrek. 650 692 458 telefono zenbakira deitu beharko du aldeztu aurretik, tailerrean parte hartu nahi dutenek. Bi ikastarotako klase egunak izena eman dutenen artean adostuko dira.

### Ipar Afrikako gatazkei buruzko hitzaldia Sutegin

Martxelo Diaz kazetari eta Mnazioarteko gaietan adituak hitzaldia eskainiko du Sutegin, ostegun honetan, maiatzaren 5ean. Ipar Afrikako herrialdeetako gatazka izango ditu hizpide Diazek. Aitzaga Elkarteak antolatu duen ekitaldia, arratsaldeko 19:00etan hasiko da. Sarrera doan.

### IV. Kale Antzerki Eguna, maiatzaren 21ean

Antzerkiak bere egun propioa du Usurbilen. Aurten, maiatzaren 21ean ospatuko da IV. Kale Antzerki Eguna. Goizeko 11:30etik aurrera, Euskal Herriko txoko desberdinetako taldeen euskarazko antzezlanen gozatzeko aukera izango da.

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**BORDATXO**  
edaritegia  
PINTXO BEREZIAK  
Zubiaurrenea, 5  
Telf: 943 37 10 42

**AITOR ALKORTA**  
Arotz lanak, era guztietakoak  
Sukaldeak  
Furgonetak norberaren gustora egokituak  
Furgoneten homologazioa  
629 789 288  
alkortaitor@yahoo.es

## Kutxi kutxi marilutxi!!

**A**urten ere hementxe gatozkizue txintxo-txintxo Usurbilgo Haur Eskolako 2-3 urteko laguntxoak. Oraingoan ere kontu polit bat kontatzeko intentzioarekin. Dakizuenez, guk Haur Eskolan jardura eta jolas asko egiten ditugu, jakin bisitaren bat edo beste ere egiten dugula. Guk gure paretaren bestaldean eguneko zentroa dugunez, ezin utzi gure aiton-amonak aipatu gabe.

Hilabeteko azken ostiralero, gure aiton-amonak ikustera joaten gara. Denok beraien aurrean lurrean eseri eta abestu edo dantzaren bat egiten diegu. Adibidez, urtarrilean danborra jo genien, otsailean inauteri festa, hilabete honetan Txanogorritxoren ipuina kontatu diegu, eta halako batean... Txanogorritxo eta otsoa azaldu ziren! Ene... Otsoarekin pixka bat beldurtu ginen batzuk! Hilabetero gauza ezberdinen bat egiten diegu eta horrekin batera guk egindako oparitzoak ematen dizkiegu.

### Ze martxosoak diren!

Baina ez pentsa beraiek ez digutenik ezer egiten! Beraien zaintzaileen laguntzarekin eskulan politak oparitzen dizkigute; loreak, tximeletak... Guk, gero,



HAUR ESKOLAKO IKASLEAK ETA EGUNEKO ZENTROKO ADINDUAK, DENAK ELKARREKIN.

hauek denak gelan jartzen ditugu. Hala ere jakin, gure abestiek batzuk dantzan eta txaloka ere hasten direla, ze martxosoak diren!

Orain sekretutxo bat kontatuko dizuegu! "sugus" goxo-goxoak ematen dizkigute eta hauek bai gustura hartzen ditugula! Ze jatorrak gure aiton-amonak!

Hasierako bisitetan batzuk ez ginen ausartzen beraingana gerturatzen, lotsatu egiten ginen, baina orain ia denok txokolatzeko muxuak banatzen dizkiegu eta oso pozik jartzen dira. Gutariko asko ez ginen pertsona helduekin abesten eta

dantzan ohituak, baina orain badakigu beraiekin ere oso ondo pasa dezakegula. Guk mimoak behar ditugun bezala, hauek ere behar dituzte eta elkar maitatu behar gara denok zoriontsu izateko.

Gu hurrengo ikasturtean ikastolara goaz, baina gure atzetik datozen beste laguntxoak hortxe izango dira gure aiton-amonen ondoan. Jarrai dezagun denok elkar maite eta bizitzaz gozatzen.

Maita zaituztegu aiton-amonak!  
Gero arte txurro eta txokolate!

**Haur Eskolako ikasleak**

## Astelehenetik aurrera Zubietan, Eskola Txikiko Kultur Astea

**S**orospen ikastaroa, ipuin kontak, laria, jokoak, pailazoak... Oparo dator aurtengo Kultur Astea Zubietan. Astelehenean hasiko da eta hauxe egitaraua.

### Maiatzak 9 astelehena

17:00-19:00 Gurutze Gorriko lehen sorospen hitzaldia (I).  
17:00 Ipuin kontalaria.  
Ondoren jokoak.

### Maiatzak 10 asteartea

17:00 Zaldiak eta pottokak.

### Maiatzak 11 asteazkena

17:00-19:00 Gurutze Gorriko lehen sorospen hitzaldia (II).  
17:00 Ipuin kontalaria.  
Ondoren Filma.

### Maiatzak 12 osteguna

17:00 Altxorraren bila jokoak.

18:00 Txokolatada.

Ondoren Buruhandiak.

### Maiatzak 13 ostirala

17:00 Dantza saioa.  
Ondoren Merienda.

### Maiatzak 14 larunbata

10:00-14:00 Puzgarriak.  
14:30 Bazkaria.  
17:00 Pailazoak.

**KALITATERO EUSKAL OKELA**

**ALKORTA AUTOZERBITZUA**

Frutak Barazkiak Etxeko produktuak Izoztuak

Beheko kalea, 4  
Telf: 943 36 57 42

**ERRAZKIN**  
Igeltzeritza S.L.

Tel.: 649 435 470  
Faxa: 943 372 679

K/ Nagusia 47. Behea A.  
20170 USURBIL

**BENTA TABERNA**

HANBURGESAK

Oilasko erreak Ogitartekoak

943 36 93 05

## Laster hasiko da Usurbil Cup Txapelketa

**O**stiral honetan amaituko da izena emateko epea. Maiatzean hasiko dira lehen norgehiagokak eta Santixabel jaien bueltan jokatuko dira finalak. Izena ematen duten taldeen arabera moldatuko dute egutegia.

Izena emateko Oiardo kiroldegira edo Usurbil FT taldeak Haranen duen egoitzara hurbildu beharra dago. Esan bezala, maiatzaren 6an amaituko da izena emateko epea.

Izen emateko orriak ere bi guneotan eskuratu ahal izango dira.

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak euren artean lehiatuko dira.

Beste hiru mailatan banatuko dira taldeak, adinaren arabera: benjaminak (LH3 eta 4), alebinak (LH5 eta 6) eta infantilak (DBH1 eta 2).

Talde bakoitza gutxienez 8 lagunez eta gehienez 12 lagunez osatua izango da.



IAZ 321 IZAN ZIREN IZENA EMAN ZUTEN GAZTEAK.

Parte hartzaileek, hori bai, usurbildarrak izan beharko dute.

40 euro ordaindu beharko ditu talde bakoitzak izena ematerakoan.

### Irati Lertxundi eta Sarai Lizaso, Euskadiko txapeldun

**A**pirilaren erdialdean jokatu zen Euskadiko Batel Txapelketa Legution. Irati Lertxundi eta Sarai Lizaso neska usurbildarrak txapeldun izan ziren Oriorekin. Aurretik, Gipuzkoako txapelketan ere nagusitu egin ziren, bandera Oriorekin. Denboraldi bikaina egiten ari dira biak eta traineruan entrenatzen jarraituko dute orain, Maria Coloma eta Ainara Manzisidorrekin batera. Euskotren Ligan, Gipuzkoako Ligan eta Kontxan lehiatuko dira aurtengo denboraldian.



IRATI LERTXUNDI ETA SARAI LIZASO EUSKADIKO TXAPELDUN IZAN DIRA.

### Antxetan, birentzat otordua irabazi du

**A**ne Barkaiztegik Antxeta jate-txean bi lagunentzako otordua irabazi du, eskubaloiek burutu ohi duten errifa zozketako zerbaki saritua erostegatik; 4.567 hain zuzen. Zozketako antolazailleek ekimenean parte hartzen duten jatetxe eta herritarrak eskertu nahi dituzte.



### Usurbilgo Pilota Txapelketa, asteburuko partidak

#### MAIATZAK 7 LARUNBATA, 10:30

##### JUBENILAK

Labaka-Arratibel – Axpe-F. Larrinoa  
(Bidegoien) (Legutio)

##### NAGUSIAK

Etxeberrri-Alberdi – Oronoz-Gorriti  
(Bera) (Doneztebe)

Ojuel-San Sebastian – Andueza-Zendoia  
(Hernani) (Azkoitia)

#### MAIATZAK 8 IGANDEA, 10:30

##### JUBENILAK

Aritzimuño-Beola – Etxebeste-Iraola  
(Bera) (Igeldo)

Lopez-Murgiondo – Azketa-Atxa  
(Hernani) (Zegama)

##### NAGUSIAK

Sarraoa-Lekue – Errasti-Altuna  
(Legutio) (Usurbil)

**izagirre**  
ELEKTRIZITATEA  
943 36 50 95-609 06 81 11  
izagirreletrizitatea@hotmail.com  
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

ZUBIALURRENEAN USURBIL  
ileapaindegia  
943361951

LAUKOTE  
OKINDEGIA  
KAFETEGIA  
Puntapax kalea, 16 behea  
(Artzabat) 943 36 09 80

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea  
ogitartekoak  
eguneroko menua  
plater konbinatuak  
EGUZKITZA, 4 - 943 370 344





## Agenda!

**Maiatzak 5 osteguna**  
**Hitzaldia Sutegin.** "Ipar Afrikako herrialdeetako gatazkak", Martxelo Diazen eskutik. 19:00etan.

**Maiatzak 7 larunbata**  
**"Larria, kutsakorra, mendebaldekoa".** Antzerkia Sutegin, 20:00etan.

**Maiatzak 13 ostirala**  
**"Izarren argia"** pelikula. 20:00etan Sutegin.

**Maiatzak 14 larunbata**  
**"Xabier Lete gogoan" kantaldia.** 22:00etan kiroldegian.

## Goardiako farmaziak

**Maiatzak 5, osteguna**  
 Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Maiatzak 6, ostirala**  
 Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Maiatzak 7, larunbata**  
 Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Maiatzak 8, igandea**  
 Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Maiatzak 9, astelehena**  
 De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

**Maiatzak 10, asteartea**  
 Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Maiatzak 11, asteazkena**  
 Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Maiatzak 12, osteguna**  
 Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Maiatzak 13, ostirala**  
 Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Maiatzak 14 larunbata**  
 Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Maiatzak 15, igandea**  
 Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

\* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ  
 Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani  
 Telefono zenbakia: 943 336 077.

## Haur danborradan parte hartzeko izen ematea, larunbatetik aurrera

**S**antixabeletan hutsik egin ez duten haur eta helduen danborradak prestatzen hasteko lanak abian dira jada. Antolatzaileek bateko zein besteko izen emate eta entsegu egunak finkatu dituzte jada. Haur danborradari dagokionean, bertan parte hartu nahi dutenek larunbat honetan, maiatzaren 7an dute izena emateko eguna, 12:00etan Agerialdeko beheko frontoian.



AGERIALDEN, 12:00ETAN HASIKO DA IZEN-EMATEA.

5 urtetik gorakoek irten ahal izango dute danborra jotzen datozen Santixabeletan. Antolakuntzatik ohartarazi dutenez, banderadun, gastadore eta ikurriñak eramateko plaza mugatuak izango dira.

### Entseguak, aurrerago

Izen emateko eguna larunbat honetan izan arren, haur danborradako entseguak bi aste beranduago abiatuko dira. Maiatzaren 20an, eta hortik aurrera, ostiralero 19:30ean Agerialden. Hilaren 20an bertan finkatu dute bestalde, helduen danborradan izena emateko

eguna. 20:30ean Agerialden baita. Eta ordu horretan burutuko da lehen entsegua. Hortik aurrera, entseguak ostiral arratsaldero, aipatu ordu eta lekuan.

### Akerra gaztetxearen asanblada

**S**antixelak hartuko dituzte ahoztan larunbat honetarako Akerra Gaztetxeok deitu duten asanblada irekian. Egurdiko 12:00etan abiatuko da bilera, Etumeta euskaltegiko egoitzan. Akerra Gaztetxeok asanbladara bertaratzera deitu dute.

## Gernika Usurbil ekimenarekin bat



EZKERREAN DIRA AGINAGAKO JAI BATZORDEKO KIDE BATZUK. ESKUBITARA, DANTZA TALDEKO KIDEAK. BIEK ALA BIEK, ATERABIDE DEMOKRATIKOEN ALDEKO AKORDIOA SUSTATZEN DUTEN EKIMENAREKIN BAT EGIN DUTE.

Josue  
 Igeltseritza:  
 606 37 21 05  
 Atallu pol.28 USURBIL


ARRANDEGIA  
**PELLO**  
 Puntapax Kalea,7  
 Tlf 36 21 64  
 USURBIL

Patri Jatetxea  
  
 K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10  
 Telf: 943 37 33 48  
 943 37 09 13  
 Ojandegia - Gozotegia  
**LABE-GOXO**



# bildu usurbil



www.bildu.info

bilduenskalerria

# aurrekezpena

Ondoren argazki jendetsua eta herri afaria.

Txartelak 15€, gazteak eta langabetuak 10€.

**USURBIL**  
Frontoian

19:30

maiatzak




# Hurbilagorekin, zeu irabazle!

%5



Hurbilago txartelarekin  
**%5eko DESKONTUA**  
maiatzaren 14tik 31ra



hurbilag

Usurbilgo Merkataria



Usurbilgo Udala



Usurbil



Usurbil



Usurbil